webguneak

Tuning-a

Andoni Sagarna • Plazagunea

Ingelesezko hitz honen esanahien bila hiztegietara jotzen baduzu, ikusiko duzu *musika-tresnez gozatzeko, makina bat doitzeko* edo *puntuan jartzeko, tresna elektroniko bat sintonizatzeko* ekintzak direla aipatzen diren adierak. Alabaina, kiosko batera hurbiltzen bazara, errazena da izenburuan hitz hori daraman aldizkariren bat ikustea, edotan auto ikusgarriren bati kanpotik nahiz barrutik gehi dakizkiokeen eranskin bereziren batzuk azaltzea. Azkenaldion *tuning* hitzari adiera berria ematen hasi zaio. Zuzen esanda, ibilgailuak norberaren gustura moldatzeko jardueraren inguruan piztu den kultura oso bat adierazteko erabiltzen da hitza dugu.

Ez da erraza hitz gutxitan *tuning* kontzeptuak biltzen duen guztia azaltzea. Ibilgailuak politago bihurtzea, seguruago egitea, aerodinamika aldetik hobetzea, erosoagotzea, ekipamenduz hornitzea, eta beste kontu ugari barne hartzen ditu. Tuningzaleak prest egoten dira euren irudimena eta sakela ahitu arte auto berezi, desberdin eta ikusgarri bat lortzen ahalegintzeko. Beste jarduera askorekin gertatzen den bezala, *tuning*-ak baditu zale porrokatuak eta guztiz gorrotatzen dutenak. Esan liteke inor gutxi epel uzten duela.

Tuningzaleek beren erakusketa eta bilkurak egiten dituzte. Euskal Herrian zaletasun handia dago eta sarri egiten dira horrelako ospakizunak: Iruñean, Zarautzen, Bilboko Erakustazokan, Villabonan, etab.

Ondoko irudi hau *http://tuningworld.com* webgunean dago eta iaz Iruñean egin zen bilkuran aurkezturiko auto batena da:

Beste hau, berriz, Zarauzko bilkuran aurkeztu zen iaz eta *http://centraltuning.com* web gunean aurkitu dugu:

Gasteizko ***Tuning Laster Club***-ek erakusten digun auto-bilduma zabal-zabala ikus dezakezu *http://www.iespana.es/photodigital/galleries/tuning/index.htm* helbidean. Adibidez:

Tuning-aren barnean badira bizitasun handia duten sail bereziak, hala nola ***audio car*** izenaz ezagutzen dena. Atal honen barruan daude autoei ezartzen zaizkien soinu-ekipoak, batzuetan beheko irudikoa bezain txundigarriak:

Audio car denda birtual handi bat ezagutu nahi izanez gero, ikus honako hau: *http://www.uscaraudio.com/*

Autoak egokitzeko eranskinak autolantegietan eta ordezko piezak saltzen dituzten dendetan aurki daitezke, baina gero eta gehiago ari dira hedatzen lantegi eta denda bereziak. Hona hemen gure inguruko batzuen webguneak:

NTS tuning. Zarautz
http://www.gipuzkoaweb.com/escaparate/NTSTuning/index.asp



Todo Auto. Ermua
http://www.todo-auto-tuning.com/

Ekipauto. Donostia
http://ekipauto.6x.to/

Pro Stock. Suzuki motorretan espezializaturiko lantegia. Angelu
http://www.motogazz.com/prostock/index.htm

Autokits Tuning. Iruñea
http://tuning.autokits.com/cgi-bin/w3-msql/AKT/autokits.html

IPAR EUSKAL HERRIKO TUNINGZALEEN ELKARTEAK:

ELKARTEA	HERRIA	TELEFONOA
CLUB TUNING AMATEUR	Bidarte	05 59 54 98 11
AUTO FOLIE 64	Ziburu	05 59 47 80 49
EUSKAL TUNING CLUB	Donepaleu	06 16 27 51 34
AMETS TUNING CLUB	Hendaia	06 67 83 90 86
CLUB TUNING 64	Donibane	
	Lohitzune	05 59 51 98 03
TUNING PAYS BASQUE		06 82 00 39 85

info www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www.

Udaberrirako elastikoak

Udaberriarekin batera eguraldia ere hobea da eta gure armairutik arropa arinagoak ateratzen hasten gara. Dena den, beti konturatzen gara aurreko urtean hainbeste jantzialdi emandako elastikoa zaharkitua geratu zaigula eta berria erostera jotzen dugu gure betiko dendara. Horren alternatiba bihurtu da elastikoak Internetetik erostea.

Interneten era guztietako elastikoak topa ditzakegu salgai; serigrafia etxeren batek jarri dituenak eta webgune batek duen bere elastiko propioa, esate baterako. Euskal Herrian elastiko egile ezagunena Kukuxumusu da eta bere webgunean famatu egin diren hainbat diseinu topa ditzakegu. Gainera, elastikoak, zapiak, liburuak eta beste hainbat produktu dituzte salgai webgunean.

Webguneek ere gero eta geihago eskaintzen dute beren elastiko propioa, horietako bat *Astalavista.com* segurtasunari buruzko webgunea da. Honek ez elastiko bat, baizik lau diseinu desberdin eskaintzen ditu. Beraz, aurtengo udaberrirako elastiko originala nahi baduzu, hemen duzu aukera polita.



Musika taldeek ere beren merchandising-a egiten dute Internetetik eta horren harira badaude webguneak musika talde askoren produktuak saltzen dituztenak.

Kukuxumusu
http://www.kukuxumusu.com
Astalavista.com webguneko elastikoak
http://www.astalavista.com/shop/index.shtml#shirt1
Hainbat musika talderen merchandising webgunea
http://store.artistdirect.com